

Gauak zaindutako arrosak

Jose Luis Padrón / Gontzal Mendibil

Gauak zaindutako arrosak irekitzen baitira
lurrean, leihopean, armairu txikietan,
agurrezko hitzak bailiran.
Eta bihotzak, oso hauskorra den txori hori,
infinituaren ilusioa galtzen du.
Azkenean nekeak bereganatu gaitu,
ez dakigu nola igaro trena atera arteko denbora luzea.
Garai batean ezagunak zitzaizkigun lekuak
orain erabat arrotz agertzen zaizkigu,
eta gustukoak genituen ametsei uko egin beharra uko.
Libre izaten ez dakigulako gorrotatzen gaitu haizeak.
Bizitza laburra da ekintza guztietan.

Agian maite dugu, agian asko maite dugu, baina
gure amodioa horrela izenda badezakegu ezer ez idatzita
dagoen liburu bateko aurkibidea da.

Gurea izan zen hura guztia.
Oi errege baino areago eskale!
Gero dator denboren ura, mantso.

Agian maite dugu, agian asko maite dugu, baina
gure amodioa horrela izenda badezakegu ezer ez idatzita
dagoen liburu bateko aurkibidea da.

Eta bularreko sua itzaltzen digu,
maite nauzun istant honetako edertasuna aldendu.

Muxuz muxu

Jose Luis Padrón / Gontzal Mendibil

Muxu eman dizut,
eta betiko galdu egin dugu.
Eta muxu horrek,
beste ehunekin besarkada jan du

Muxuz muxu, muxuz muxu,
Muxuz jan du.

Muxu eman dizut.
Eta ez diogu horrelako besarkadarik
gehiago elkarri emango, ez diogu emango.

Muxuz muxu, muxuz muxu,
Muxuz jan du.

Besarkada burutu egiten da,
eta besarkadaz besarkada
gure maitasuna da burutu dena,
daukagun bakarra.

Zuri so

Gontzal Mendibil

Zerua bezain argiak dira zure begiak
izarren begiradan dirdir zure irria,
zeure baitan bila zazu nahirik sakonena,
ta euria ari du ari du, ta estalperik ez dut.

Han nago zuri so
han nago,
zugan zugan gau ilunbean
zugan, zuri so.

Zure soinaren bila dabil nire oina,
zure sena ikutu nahi dut arnasaren grinan
ikusi nahi zinduket bizi pozen lorian
senti nahi zaitut zeu zaren egian.

Han nago zuri so
han nago,
zugan zugan zeure gogoan
zugan, zuri so.

Izarrak ari dira ari dira geuri begiratzen,
izarrak ari dira ari dira geuri begiratzen.

Zure begien dirdirak hain dira nireak,
zure begien dirdirak neuretzat eginak.

Bideari daragoiot ta ilusioa berbizten jat
eguzki izpi ederrak dakarzta haizeak
bizi gogoa emon daust, laztantzera jatort
neuri so, neuri so, maite nauela dinost.

Han nago zuri so
han nago,
zugan zugan egunsentian
zugan, zuri so.

Gizon pribilejiatua

Bitoriano Gandiaga/ Gontzal Mendibil

Ez zen ametsetako munduan bizi. Ez zen bizi oinpean
dugun lur honetaz kanpo. Ez zen aberats. Eguneroko ogia
zuen eskatzen, bere soina estaltzeko jantzia eta euritatik
eta hotzetik gordeko zuen aterpea.

Ez zen bizi lanik gabe ere.
Inork izendaturiko lan-orduak zituen
eta oso gustoko ez zitzaizkion zenbait
zereginetan aritu behar zuen egunero
hurkoekiko amorearren.
Mila aldiz pentsatu zuen inoren menpetik alde egitea.

Askatasun-gogo izugarria zuen bizitzako gurutze bakarra.

Baina ez zen ametsetako munduan bizi.
Munduan sentitzen zen, inguruarekiko dependentzian.
Ez zuen nahi, inola ere, inorenetik bizi.
Eta ongi zekien inguruko zergauza bakoitzak bere
independentzia zuela.

Nor bakoitzak bezala maite zuela
zergauza bakoitzak bere independentzia.
Eta gauza bakoitzaren
independentzia maite zuenez, nahitanahiezko
zirudion inguruarekin akordio egoki batean bizitzea.
Naitaezko harremanean.

Askatasun-gogo izugarria zuen bizitzako gurutze bakarra.

Inoren menpetik alde egiteko zuen sukar
hura, nahitaez, inoren gainean eta inoren kontra bizitzeko
egarri zoro bat zuela konturatu zen eta bere buruaren jabe,
izan zitekeela egokitasun bakar baten barruan.

Amesgaiztoa

Kirmen Uribe / Gontzal Mendibil

Haurrekin amets egin dut gaur ere,
gerrako haurrekin.
Automobil batean zihoazen
muga zeharkatzeko asmoz, nagusirik gabe,
bakarrik, gidatzen ere doi-doi zekitela.
Gurasoek, etsiturik,
nahiago zuten haurrak auto-istripuz hiltzea
egunero bonbek urratzen duten hirian baino.
Ihesi zihoazen, halabeharrak utzitako
azken aukera profitatu nahian.

"Nora goaz? Ez dakit!"
"Nora goaz? Gu pozik!."

Haurrekin egin dut amets. Gerrako haurrekin.
Neu ere haurra nintzen. Eta ihes egiten genuen,
mugarantz, kantari,
bakarrik, gidatzen ere doi-doi zekitela.
Gurasoek, etsiturik
Esnatzeko eginahalak egin, baina
behin eta berriz hondoratzen nintzen
amesgaizto hartan. Beti amets bera.
Ihesi zihoazen, halabeharrak utzitako
azken aukera profitatu nahian

"Nora goaz? Ez dakit!"
"Nora goaz? Gu pozik!."

Argi txikia

Igor Estankona / Gontzal Mendibil

Batzuetan justizia ez da
une bateko zoramena baino,
zoramen iragankorra,
argi handi baten erdian argi txikiago bat eta,
orkatilak aske, pausoa luze eman ahal izatea.
Argi handi baten erdian argi txikiago bat,
zuk zeuk isiotua ez beste inork,
zuk zeuk hartua ez beste inork
emana.



Zu joatean

Bitoriano Gandiaga / Gontzal Mendibil

Bazoaz zeure lora txikiekin
Zeure frutu gorriekin... nora?
Bazoaz eta ez dakit zer sentitzen dotan zu joatean
neure bihotza zear ete zoaz?

Ta ez dakit zer gura dotan zu joatean
Ta ez dakit zer gura dotan zu joatean
Ez dakit zer gura dotan

Udagoen azkenetako laiñotan sartu zareanean
Udagoen azkenetako laiñoa barrura sartu jatanean,
Udagoen azkena, orbel zarataz, doan bitartean
Zeure usain zaar eta gozoa igaro da nire ondotik.

Ta ez dakit zer gura dotan zu joatean
Ta ez dakit zer gura dotan zu joatean
Ez dakit zer gura dotan.

Berbak, ots zaar baiño, malko barri ta ixil, udagoen lurrean
Lehenago betikoa uste neban, orain orri diran lurrean
Berbak malko barri diran lurrean, ta ez dakit zer gura dotan
Ikusten ez dotan arkaitz artean nabil itzi dozun gomutagarrian.


Biloxik

Bitoriano Gandiaga
Gontzal Mendibil

Billoxik adar jasoak
Iretargitan, pagoak,
milla begiez, zerura, neure
ainbeste naien lakoak.

Milla begiez pagoak,
Iretargitan, jasoak.
Gora nagien, izarrei eske,
Luzatu ditut besoak.

Luzatu ditut, jasoak,
Iretargitan, besoak.
Neure eskuekin ikutu dotaz.
...Izarrei eske, pagoak.



Bizirik dirauten ametsak

Gontzal Mendibil

Etorkizunerantz begira nago
ahaztuezinezko irudi bizietan.
udaberria neuk loratuko dut maitea
zure hitzak zenbat balio didan,
zure grinak, neureak eginak,
usaintzen ditudan lili berdeak
ditut bertan ditut nigan
ametsdagit, ta izan bekit.

bizirik ditudan desirak dira
bizirik dirauten ametsak dira.

Geroan ere izan zaitzaket
zugan jarriko ditut lorpen hoiek,
garaiz gaude zin dagizut maite, zin dagigun
bidean darraigu, ta ez da berandu.
Bidean goaz, bidean libre
zeure gogoan zerua dut lore
zarenean, zauden hortan
ta ariman zaitut, senean zaitut.

bizirik ditudan desirak dira
bizirik dirauten ametsak dira.

Galdetzen badizute inoizko baten
nor zaren, norantz goazen.
Esaiezu izanak egin zaitula zarena
pausuz pausu lortu duzula duzuna,
orain dituzun, garaipenak
zeureak direla, zeuk eginak.
Ez bazaituzte maite,
gogora eiezu zeu zarela.

bizirik ditudan desirak dira
bizirik dirauten ametsak dira.

Benetan maite baduzu

Gontzal Mendibil

Maite duzun hori zaintzen baduzu
senti duzun hori hedatzen baduzu,
arnas berri bat bizi izango duzu
egunsentia hain hurbil dukezu.

Saiatu beharko,
saiatu beharko duzu
Benetan, benetan, benetan maite baduzu.
Benetan, benetan, benetan joka tu.

Zabal itzazu begiak
ezinean zaudenean,
Zabal itzazu begiak
mugak estuak direnean.

Zabal itzazu begiak
sumindurik zaudenean
Zabal itzazu begiak
bihotzeko begiak.

Lortzen ez baduzu, ta jausten bazara
zutun zaitez lagun, bizitza hain da laburra,
irudi berri bat zugan dukezu
mundu ezberdin bat aurkitu ahal duzu

Nigan zaitudanean

Gontzal Mendibil

Loreak ere ixilik dira,
ixilik, dana ixildu da
maitasun garden sekretu baten
zaitudanean hemen.

inork ez daust gaur zutaz galtetzen
ez zaitue erreparatzen
neure bidean larrosa zara
geroaren izarra,

Maitea, zeu zara
Maitea nigan zaitut

mets eder bat itxartu jata
neure bihotz erdian
amets eder bat egi bihurtu zan
agertu zinenean..

Amore lirain miresgarria
hegada ta kabia
delizi pozen lorategia
erne jakun hazia

Maitea, zeu zara
Maitea nigan zaitut

Goazen lotara ene maitia
illargipeko argitan
milaka amets, milaka promes
ferekan ta algaran

Maindire azpian murgil gaitean
amodioaren irrian
zeu nire erdia, zeu nire egia
arnas beteko airean.

Maitea, zeu zara
Maitea nigan zaitut

Zeu zara, ene bizia, ene irria, ene malkoa
Zugan pentsatzen dut zugan ta gugan
Izar haren billa joan ginen gauean
Amets eder hura bizi dugunean.

Gontzal Mendibil Zuri so

Gontzal Mendibil: Kantuen sortzailea eta abeslaria
Jose Luis Canal: Moldakuntzak eta instrumentazioa
Gontzal Mendibil, Jose Luis Canal: Musika ekoizpena

Jose Luis Canal: Pianoa, K5000, Minimoog, Moog modularra, marinbak
Blas Fernandez: Bateria
Julio Andrade: Baxoa,Kontrabaxoa, perkusioa
Angel Unzu: Gitarra akustikoa, elektrikoa, perkusioak
Javi Alzola: Saxo Altua eta Soprano, Flauta
Marife Nogales: 2.ahotsa: Zu Joatean, Billoxik eta Nigan Zaitudanean kantuetan
Afrika Bibang: ahotsak (Argi Txikia kantuan)
Boskoitz boskotea: (Billoxik eta Amesgaiztoa)
Oihana Kontxezo: Flauta
Javier Lekunberri: Oboe
Arturo Galdaracena: Klarinetea
Xavier Sarasa: Tronpa. Iñaki Iraola: Fagota
Haur kantariak (Amesgaiztoa kantuan):
Olatz San Miguel, Jone Gezalaga, Alazne Aizpurua, Natalia Intxauspe.

2004.ko Urrian Donostiako
ELKARLANEAN estudioan grabatua eta masterizatua.
Teknikaria: **Jean Phocas**
Azala eta maketaren diseinua: **ZUT**
Argazkiak: **Paco Garcia**
Gastelerazko itzulpenak: **Gontzal Mendibil, Puntomas, Jose luis Padrón**
Frantsezera eta inglesera: **Puntomas**

Ekoizpen artistikoa: **Maxi Gutierrez**

Ekoizpena: **Gontzal Mendibil, Keinu**

Nire eskerrona lan honetan era batean edo bestean parte hartu duzuen guztioi,
Musikariei zein olerkariei eta batez ere hain moldakuntza ederrak burutu dituen Jose Luis Canal musikaria eta lankideari, buru belarri sartuak izan garelako 2004.ko uda eta udazken honetan, eskuetan duzuen honek argia ikusi dagian.

Gontzal Mendibil